

# URTEKO MEMORIA 2013







# GIDOIA

03 **Zuzendari Nagusiaren mezua**

05 **Urteko Memoria zifratan**

07 **Hazkunde globala**

09 **Industria dibertsifikazioko enpresak**

10 **Mugarri garrantzitsuak**

11 **Irizarreko Euro VI markako autokarren belaunaldi berria**

12 **Irizar i3 Low Entry modelo merkaturatzea**

13 **Marka**

15 **Teknologia etorkizuneko apustu gisa**

16 **Gizarte erantzukizun korporatiboa**



“  
*Taldea inoiz  
baino gazte  
eta sendoago  
dago*”



3

URTEKO MEMORIA 2013

# Zuzendari Nagusiaren mezua

*Gure 125. urtebetetzean berriro ere hazkundeaz hitz egin behar dugu. Irizar Taldeak, berriz ere errekor historikoa lortu du, 550 milioi euro baino gehiagoko fakturazioarekin itxi baitu 2013ko ekitaldia.*

Taldea inoiz baino gazte eta sendoago dago. Dibertsifikazio geografiko eta industrialean sinesten jarraitzen dugu, gure hazkundearen oinarritzko estrategia moduan. Gure apustu irmoa dira teknologia eta iraunkortasuna, produktu propioak eta marka, bai autokar eta autobus elektrikoetan bai gure presente gauden sektoreetako gainerako produktuetan.

Errealitate hori munduan banatuta ditugun sei autokar lantegietatik garatzen da, industri dibertsifikazioaren ondorioz eratutako beste bost konpainietatik eta gure Zentro Teknologikotik; bertan, ikerketa aplikatuko prozesua eta marka propioko produktuen garapena areagotzen dugu.

Hori guztia haztera zuzenduta, etorkizuna bermatzera eta aberastasuna eta enplegua sortzera.

Aurten urteurrena ospatzea dagokigu, familia honen parte zareten guztiokin gure poza eta 125 urteko bidearen harrotasuna partekatzea.

Joan den 2013ko mugarri garrantzitsuen artean hauek nabarmendu nahi ditut:

- Fakturazio bateratuaren hazkundera, 556 milioira arte. Hazkunde hori Taldearen negozio arlo guzti-guztietan gertatu da, Irizar Ormaiztegi barne, bertan hazkunde handia izan baita fakturatutako unitateei dagokienez, gure sektorearen aldaketan ondorioz (Euro 5etik Euro 6ra).

- Teknologia izango da taldeari independentzia emango diona eta iazkoa gure I+G zentroa, CREATIO, eta talentua geureganatzeko programa (ITP) finkatzeko urtea izan zen. Ezagutzari eta teknologiari eskainitako indarrak geroz eta biziagoak dira eta epe ertainean gure etorkizuna markatuko duten produktuak sortzen ari gara. Ikerketa saioak ohiko autokarrentzako gure karrozerien osagai eta sistemetara bideratzen dira eta gure autokar integralen gamako sistema guzti-guztietara.

Gure % 100 autobus elektrikoaren proiektuan ere gogor ari gara lanean eta lehen unitatea uztailean entregatuko da.

- Ormaiztegiko instalazioetan 1.200 m<sup>2</sup> zabaldu eta irudia nabarmen hobetu dugu: showroom bat ezarri dugu, bezeroentzako gunehandi bat, gure I+G zentrorako bulegoak eta instalazioak eta gunehorparatibo bat. Instalazioetako sarbide ere hobetu da, eta eraikin berri eta moderno bat jaso da autokarrak bezeroei entregatzeko.

- Ingurumenaren eta gizartea hobetzearen aldeko apustuarekin jarraitzen dugu argi eta garbi. Gizarteari ematen diogun babesa handitu dugu, kultura, ingurumen eta mugikortasun iraunkorari buruzko alderdietan. Bokazio horren erakusle nagusia gure hiri autobus elektrikoaren sorrera da.

Beti bezala, berriz ere eskerrak eman nahi dizkiet bezeroei gugan jartzen duten konfiantzagatik, eta baita Irizar Taldeko pertsona eta laguntzaile guztiei ere, behar izan denean beti hor egoteagatik, prest.

**José Manuel Orcasitas**

Irizar Taldeko Zuzendari Nagusia






# 2013. urteko memoria zifratan


## Enplegua

Pertsonak



## Salmentak

Milioi euro



Irizar taldeak beste fakturazio marka batekin itxi zuen 2013. urtea: 556 milioi euro. Hazkundera Irizar markaren eta taldea osatzen duten gainerako marken sendotasunaren ondorio da, baita bezeroen konfiantzaren ondorio ere bai. Irizarrek, beraz, mundu mailako erreferentzia gisa sendotzen jarraitzen du gama altuko autokarren fabrikazioan.

2013. urtean guztira 5.368 autokar produzitu dira eta haietatik 2.988 gama altuko autokarrak dira. Horietatik %38, 1.000 unitate baino gehiago, Ormaiztegi lantegian ekoiztu dira, Europara eta Israelera bidaltzeko.




5

URTEKO MEMORIA 2013




## Aktiboa



Fakturazio osotik, %34 Irizarrek Ormaiztegin duen lantegiari dago, %46 Irizarrek munduan dituen gainerako lantegiei, eta %20 Irizar Taldeko gainerako enpresen fakturazio bateratuari.

## Fondo Propioak



Fakturazio osoaren %88 Taldeko lantegi guztien esportaziotik dator, kontuan hartuta Irizar nazioarteko-tze eta dibertsifikazio maila handia duen taldea dela.

Irizar Ormaiztegin iaz egindako inbertsioak 18 milioi eurokoak izan dira, bai lantegia hobetzeko bai IGBrako.



# Hazkunde globala

## Autokar enpresak

### Irizar Ormaiztegi

Oso urte ona izan da Ormaiztegirako, Europako merkatuek bizi duten egoerarekin alderatzen badugu eta, batez ere, estatukoek bizi dutenarekin.

Fabrikazioa %15 baino gehiago hazi da 2012. urtearekiko. Bolumenaren hazkunde horren eragilea Europan 2014an indarrean jarriko den igorpenen araudiaren aldaketa izan da. Euro 6 araudi berri hori zorrotzagoa bada ere ingurumenari dagokionez, bezeroentzat aurrekoa baino nahiko prezio garestiagoa dakar, eta, ondorioz, bezeroek erosketak aurreratu egin dituzte.



### Irizar Mexiko



Irizar Mexikok produkzio markak hausten jarraitzen du eta 2013an 900 unitateko kopuru historikora heldu da. Estrategia nagusia bezeroarenganako hurbiltasuna da eta Irizar taldeko balio nagusietan du oinarria; hala nola fidagarritasunean, errentagarritasunean, erosotasunean, segurtasunean eta zerbitzuan. Marka horretara iristeko Mexikoko merkatuan zabaltzen jarraitu du eta dagoeneko bidaiarien garraioan aritzen diren enpresa gehienek Irizarko autobusak dituzte euren flotan.

Irizar marka oso indartsua da merkatu horretan, eta autokarrak herrialdeko errentagarrien eta aurreratuentzat jotzen dira. Irizarrek Mexikoko merkatuko lider eztabaida ezina dela berretsi du, beraz, % 50 baino kuota handiagoarekin.



## **Irizar Maroko**

2013a positiboa izan da. Marokon Irizar i6 modeloa merkaturatu da eta arrakasta handia izan du. Gainera, Irizarren helburua errealitate bihurtzen hasi da: Marokoko lantegian Europarako autokarrak egitean eskaintzen diren kalitate parametroak bereziki zainduz, Taldearen gainerakoak bezalakoak izan daitezten.

Parametro horiek dagoeneko taldeko gainerako baliokideak dira. Taldearen estrategia da gama altueneko produktua Ormaiztegiko lantegian egitea, eta merkaturaren hazkundearen arabera gainerako eskaerari Skhirat-eko lantegitik erantzutea.



Irizar i3 Low Entry lehen unitateak fabrikatu dira dagoeneko Espainia, Ingalaterra eta Danimarkarako. Horrez gain, 60 autokarreko sorta bat egin da Poloniarako, Irizar Century modelokoa Scania txaxisaren gainean.

## **Irizar Brasil**



Irizar Brasil ere hazi egin da, bai barne merkaturan bai bere esportazio merkaturan ere.

Irizar i6 modeloarekin hurbiltasuna eta produktuaren hobekuntzak eskaini zaizkie bezeroei eta, horrekin batera, Premium alorreko posizionamendu estrategiak merkatu kuotaren hazkunde handia ekarri du bai Brasilen bai bere esportazio merkaturan ere. Horiek horrela, bere 16 urteko historiako produkzio marka gainditu du 2013an, gama altuko 800 unitate ekoizita.

## **Irizar TVS India**

Urtearen amaieran Indiako joint venturean zegoen partaidetza %5eraino murriztu da.

Irizarrek bazkide teknologiko gisa jarraituko du, merkaturaren garapenaren eta etorkizunaren bazkideek izan dezaketen estrategia-aren arabera, proiektuaren garapenari lagundu ahal izateko teknologia transferentzien bidez.

## **Irizar Southern Africa**

Irizar Southern Africak erreferente izaten jarraitzen du luxuzko autokarren sektorean.

2012an Irizar i6 modeloa merkaturatu zen motorra aurrealdean edo atzealdean jartzeko aukerarekin eta dagoeneko Irizarren autokar gama osoa dago eskuragarri hazten jarraitzeko.



# Irizar Group

## Industria dibertsifikazioko enpresak

**HISPA@LD**

2013 urte ona izan da Hispacoldentzat, jarduera hazi egin baita esportazioengatik eta honezkerok sendotuta dagoen tren sektorerako dibertsifikazioagatik. Hazkundera gertatu da estatuko hirietako autobusen merkatua ia erabat geldu den arren.

 **Masats**

Hazi egin da, batez ere Europara eta Asia hego-ekialdera egindako esportazioengatik. Erreferente bihurtu da Singapurren, 2014an Masatsen sistemekin hornitutako 800 ibilgailu dabilta han martxan.

Gainera, tren sektorean duen presentzia sendotzen ari da irisgarritasun sistemekin eta bidaiarientzako atekin.

 **Jema**

Jema jarduera bolumenari eusten ari da berriztagarrien arloan jaitsiera oso nabarmena den arren.

2013tik Brasil, Mexiko eta AEBn dago eta handik alboko merkatuetara irits daiteke, Txilera kasu.

Jema erreferente da gaur egun "proiektu" berezietan eta teknologia handikoetan mundu mailan.

Era berean, Jema elektronika, taldea sistemaz hornitzeko sortu zena, fakturazio osoaren % 15 da dagoeneko. Dibisio honen hazkunde garrantzitsua aurreikusten da, autobus elektrikoarentzat kargadoreak eta elektronika egingo baititu. Gainera, orain itsasoko offshore sektorean aukerak aztertzen ari da Alconzaren eskutik.

 **datik**

Proiektu handien eta ereite lan handiko urtea izan da 2013a Datikentzat, bai estatuan bai Mexikon. Lehen ekipoak instalatu zaizkie bezeroei.

2014ari dagokionez, aurreikuspenak onak dira, Bizkaibuseko (Pesa, CAV eta ALSA) autokar guztietarako eskaera lortu baitu, gailu eta informazio programa guztiak biltzen dituen paketearekin. Gainera, bezero mexikar handi baten lankidetzaz izango du laguntzaile teknologiko gisa ekipamenduak ezarri eta garatzeko.

 **alconza**

Alconza taldean sartu den azken enpresa da, 2013an, eta urtean errekorra lortu du fakturazioan, batez ere offshore itsas merkaturako motor eta generadoreen jarduerari esker.

Sektore horretan bertan datozen urteetarako ere aurreikuspenak onak dira, eta espero dugu etorkizunean hazi egingo direla.



# Mugarri garrantzitsuak



## Irizarrek lider jarraitzen du UKn

Irizarrek 2013an zehar bere lidergoa mantendu du Erresuma Batuan, Scania txasisa duten autokar konbentzionalekin zein autokar integralen lerroarekin %23,6ko merkatu kuota erregistratu baitu.



## 20 urteko lankidetzara arrakastatsua Scania GB

Irizarrek eta Scania GBk beren bezeroekin batera ospatu dute 20 urteotan izandako erlazioaren arrakasta partekatua. Izan ere, harreman horri esker, Erresuma Batuko merkatuan lider izatera iritsi dira 2012az geroztik, eta 1.800 autokar baino gehiago merkaturatu dira bere historiako 20 urteetan.



## Irizar, 20 urte Italian

2013ko azaroan Irizar Italiaren fundazioaren hogeigarren urteurrena ospatu zen Reminin, bezero eta kazetariekin eta leasing eta banku erakundeen ordezkarekin. 20 urteko lankidetzara arrakastatsua, herrialde horretan 1.800 autobus baino gehiago jarri dituena.



## Mugak irekiz:

*Ankara, Egeo Itsasoa, Mediterraneo eta Itsaso Beltza*

2013ko urrian Turkian Ulusoyri Irizar i6 modeloko hamar autokar entregatuta, Irizarrek herrialde horretan duen presentzia berretsi da. Unitate horiek, lehendabiziko aldiz, Ankara, Egeoa, Mediterraneo eta Itsaso Beltza lotzen dituzten luxuzko lineak egingo dituzte.



10

URTEKOMEMORIA 2013





## ***Irizarreko Euro VI markako autokarren belaunaldi berria***

Urrian egin zen Kortrijkeko Busworld azokaren esparruan, Irizar markako autokar integralen belaunaldi berria aurkeztu zen, segurtasun, kontsumo eta pisuaren inguruko nobedadeekin.





## ***Irizar i3 Low Entry modeloa merkaturatzea European***

Halaber, Busworld azokaren esparruan, Irizar i3 aurkeztu zen, eta dagoeneko prest dago bere bertsio konbentzionalan (txasisarekin) europar merkatuetan lehen fasean merkaturatzeko.







13

URTEKO MEMORIA 2013

## Marka

*Irudiaren hobekuntza sendoa:  
Gune berriak Irizarren  
bezeroarentzat eta bezeroarengatik*

**2013an Ormaiztegiko Irizarren 1.200 m<sup>2</sup>-ko zabalkundea egin da, Creatioren bulegoak eta instalazioak hartzeko helburuarekin (Irizarren Ikerketa eta Garapen Zentroa), baita showroom bat hartzeko ere, eta eraikin berri eta moderno bat, bezeroei autokarrak entregatzeko.**

**Eraikina zabaltzeak bigarren planta bat eta harrera gune berria ekarri ditu, bisitaria hartu eta Irizarren mundura eramateko, etengabe hazten ari den marka sendoarekin, etorkizunak eta teknologiak garrantzi berezia duten mundura.**

**Batez ere bezeroentzat zuzendutako showrooma espazio handi bat da, eta bezeroak bere neurria diseinatu ahal izango ditu han autokarrak. Baina horrez gain, Irizar markaren esperientzia bizi ahal izango du.**









## **Teknologia etorkizuneko apustu gisa**

Teknologia izango da taldeari independentzia emango diona eta iazkoa gure I+G zentroa, CREATIO, eta talentua geureganatzeko programa (ITP) finkatzeko urtea izan zen.

Ezagutzari eta teknologiari eskainitako baliabideak geroz eta biziagoak dira eta epe ertainean gure etorkizuna markatuko duten produktuak sortzen ari gara. Ikerketa saioak ohiko autokarrentzako gure karrozerien osagai eta sistemetara bideratzen dira eta gure autokar integralen gamako sistema guzti-guztietara.

Gure hiri autobus %100 elektrikoaren proiektuan ere biziki ari gara lan egiten.





## Gizarte erantzukizun korporatiboa

Zalantzari gabe, hiri autobus %100 elektrikoa da orain ere iraunkortasunarekin dugun konpromisoaren erakusle nagusia. Dagoeneko errealitate bihurtu da. Gaur egun iraungarritasun probak amaitzen ari dira, eta lehenengo unitatea Donostian entregatuko da, datorren uztailen.



16

URTEKO MEMORIA 2013



### Irizar Mundu Itunari atxikitzea

Irizarren mundu hobe baten alde egiten dugu eta, gure misioarekin bat eginez, gure pertsona guztien konpromisoa sustatzen dugu lehiakortasun iraunkorraren alde, gizarteari, ingurumenari ea ekonomiari lotutako alderdietan.

Horregatik, erabakimenez lan egiten dugu sozialki arduratsua den marka gisa ezagut gaitzaten. Bide horretan Nazio Batuen Mundu Itunari atxiki gaitzaizkio giza eskubideen, lan eskubideen, eta ingurumenaren alde eta ustelkeriaren aurkako gure konpromisoa islatzeko.

### Konpromisoa pertsonekin

Urriaren Kooperatibaren 50. urteurrenaren jaia ospatu genuen Irizarren. Ospakizun hartarako Irizarren lan egiten dugun pertsonen senitartekoak gonbidatu genituen eta 1.700 pertsona inguru elkartu ginen.

